

2004ko UZTAILAREN 1eko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, bi mila eta lauko uztailaren batean, goizeko zortziak direnean, Alkatea: Joseba Egibar Artola; Udalkideak: Patxi Ezkiaga Ormazabal, Xabier Arrese Arratibel eta Jose Antonio Imaz Insausti; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- A-3, A-4 ZONALDEKO ZUBIAREN BERRIKUNTZAREN ADJUDIKAZIOA

ADJUDIKAZIO PROPOSAMENA

Bi mila eta lauko ekainaren hamaikan ospatutako bilkuran, Lizartzako A-4 Zubi Berriaren Egokitzapena lanen kontratuaren adjudikazio proposamena luzatu zen, CONSTRUCCIONES FRANCISCO AIERBE S.L.ren alde, bera izan delako lehiaketan punturik gehien lortu dituen, 45 puntu.

Bilkura horretan luzatutako akta aztertu eta berarekin ados, zera proposatu da:

- 1.- Enkanteko eskaintza balioestea eta Lizartzako A-4 Zubi Berriaren Egokitzapena lanen kontratua, CONSTRUCCIONES FRANCISCO AIERBE S.L.ri, BERREHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI MILA SEIEHUN ETA ZAZPI Euro BERROGEITA BAT Zentimo (269.607,41,-) €-tan (Bez barne delarik) eurotan adjudikatzea.
- 2.- Indarrean dagoen Aurrekontuko 601.511.02.01 partidaren kargura, 269.607,41,- eurotako gastua onartzea.

3.- Hamar eguneko epean, kontratistari esleipen kontratuaren ebazpen hau jakineraztea, hamabost eguneko epean, behin betiko bermea jarri duela egiaztatu ahal izateko, eta hogeita hamar eguneko epean, administrazio kontratuan, esleipena gauzatzeko. Halaber, gainerako partaideei jakinerazpen bera egingo zaie.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Lizartzako A-4 Zubi Berriaren Egokitzapena lanen kontratua, CONSTRUCCIONES FRANCISCO AIERBE S.L.ri, BERREHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI MILA SEIEHUN ETA ZAZPI Euro BERROGEITA BAT Zentimo (269.607,41,-) €-tan (Bez barne delarik) eurotan adjudikatzea, aho batez onartu da, bera izan delako lehiaketan punturik gehien lortu dituen.

3.- AGUA DE INSALUS. XEHETASUN AZTERLANA. BEHIN BETIKO ONARPENA

Udaleko Alkate-Lehendakariak, bi mila eta lauko martxoaren hamarrean luzatutako Ebazpenaren arabera, Lizartzako Laguntzako Arauetako A-5 Sektoreari dagokion Xehetasun Azterlanari lehen onarpena eman zion.

KONTUTAN HARTUAZ.- Erabaki hori, 2004ko Martxoaren 23ko, 55 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta 2004ko Martxoaren 30eko Berria egunkarian, hamabosteko epean, jendeaurrean egon zela, eta ez zela inola alegaziorik jaso.

TJOL.ko 54. eta Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren 173. Artikuluaren arabera, Idazkariak Txostena luzatu du.

TJOL.ko 114. eta Planeamenduko Erregelamenduaren 130 eta 131. artikuluek ikusirik, Udal Batzarrari, proposatu zaio:

ERABAKIA

1.- Lizartzako Laguntzazko Arauetako A-5 Sektoreari dagokion Xehetasun Azterlanari, behin-betiko onarpena ematea.

2.- Erabakia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Lizartzako Laguntzazko Arauetako A-5 Sektorari dagokion Xehetasun Azterlanaren Onarpenari buruzko proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, gehiengo absolutuaren “quorum”arekin, aho batez onartua izan da.

4.- GOIKOETXEAUNDIA ZERRA. XEHETASUN AZTERLANA. BEHIN BETIKO ONARPENA

Udaleko Alkate-Lehendakariak, bi mila eta lauko martxoaren hamarrean luzatutako Ebazpenaren arabera, Lizartzako Laguntzazko Arauetako A-6 Sektoreari dagokion Xehetasun Azterlanari lehen onarpena eman zion.

KONTUTAN HARTUAZ.- Erabaki hori, 2004ko Martxoaren 23ko, 55 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta 2004ko Martxoaren 30eko Berria egunkarian, hamabosteko epean, jendeaurrean egon zela, eta ez zela inola alegaziorik jaso.

TJOL.ko 54. eta Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren 173. Artikuluaren arabera, Idazkariak Txostena luzatu du.

TJOL.ko 114. eta Planeamenduko Erregelamenduaren 130 eta 131. artikuluek ikusirik, Udal Batzarrari, proposatu zaio:

ERABAKIA

1.- Lizartzako Laguntzazko Arauetako A-6 Sektoreari dagokion Xehetasun Azterlanari, behin-betiko onarpena ematea.

2.- Erabakia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Lizartzako Laguntzazko Arauetako A-6 Sektorari dagokion Xehetasun Azterlanaren Onarpenari buruzko proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, gehiengo absolutuaren “quorum”arekin, aho batez onartua izan da.

5.- U-1 INDUSTRIALDEKO LURREN ZESIOAREN ONARPENA, ETA ALKATEARI AHALMENAK EMATEA

IKUSIRIK.- 2004ko Maiatzaren 24an Lizartzako Alkatetzak emandako ebazpena, non, Lizartzako Arau Subsidiarioen U-1 Egikaritzapen Unitatean jaeek eragindako borondatezko Birzatiketa, egiteko proposamena, behin betikoz onartzen duen.

JAKINIK.- Birzatiketa egiteko proposamenean erabilera eta jabari publikokoak izateko lagatzea jasotzen dela.

JAKINIK.- Borondatezko Birzatiketa hori behin betiko onetsi ondoren, ez dela beharrezkoa formalizazio berririk egitea eta Jabego Erregistroan inskribatzeko nahikoa dela aipatu eskritura eta berau onesteko erabakiaren egiaztatzea aurkeztea.

JAKINIK.- Aipatu dokumentuan legeak aurreikusitako izapideak egin direla eta berau onesteko beharrezko betekizun tekniko eta juridikoak betetzen dituela.

AINTZAT HARTURIK.- Hirigintzako Kudeaketaren Erregelamenduko 115 artikuluan jasotakoa eta Hirigintzako Egintzen Jabego Erregistroan erroldatzeari buruzko Arautegian (uztailaren 4ko 1093/1997 Errege Dekretu bidez onetsia) jasotakoa.

AINTZAT HARTURIK.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22, 2. o) artikuluan jasotakoa.

Guzti hori kontutan hartuta, Udalbatzari proposatzen zaio:

- 1.- Abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuko 115 artikuluan eta Lurzoruaren Legearen Testu Bateratuko 128. artikuluan jarraiki, lagapena onartzea eta Borondatezko Birzatiketaren eskrituran, Tolosako Valentina Montero Vilar Andrearen aurrean emana, 2004ko Otsailaren 17an, 163 protokolo zenbakiarekin, jasotako ondorengo partzelak udal jabari publikoan sartzea:

“5. PARTZELA

DESKRIPZIOA: Lizartzako Arau Subsidiarioetako U-1 Sektorean kokatzen den, Bide, berdegune eta gunee libretrako, P-5 deituriko partzela.

Lizartzako Udalak, 682 m²-ko partzela eransten due, Araxes ibaiaren gaineko 2 zubi eta herri bide batekin osaturik, gunerako indarrean dagoen Plan Partzialean aurrikusten denaren arabera; ondasun hauek, Udalari adjudikatutako P-5 partzelaren barruan kokatzen dira.

P-5 partzelak, guztira, hogeita mila zortziehun eta laurogeita hamahiru (20.893) m²-ko azalera du. Mugak: Ifarra: Araxes Ibaia eta CN-130 errepidea; Ekialdetik: herri bidea; Hegoaldetik: Kanala eta Mendebaldetik: Iruntzi baserriko bidea eta gainera, tarteka, P-1, P2, P-3 P4 eta P-5 partzelekin.

HIRIGINTZAZKO ARAUAK: Partzela honen titularitateko eskubide eta betebeharrak, behin betirako onartuta dauden Lizartzako Planeamenduko Arau Subsidiarioetako U-1 Sektoreko zehazketa eta ordenantzen mugetan beteko dira.

HIRIGINTZAZKO MUGAK: Aktuazio Unitateko gainontzeko partzelantzat eratorritako egekuziotik datozenak.

KARGAK: Ez ditu.

HIRIGINTZAZKO ZAMA: Partzela honen gain, ez dago Hirigintzazko zamarik.

ADJUDIKAZIOA.- Lizartzako Udalari, jabari osoa, 100%-en.

2.- Lizartzako Alkate-Lehendakariari eskumena ematea erabaki hau betetzeko beharrezko dokumentu eta eskritura guztiak sina ditzan.

3.- Erabaki hau Lizartzako Arau Subsidiarioen U-1 Egikaritzapen Unitatean eragindako jabeei jakinaraztea, eta aditzera ematea beronen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere aurkez daitekeela Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako Epaitegian, jakinarazten denetik bi hilabeteko epean. Edo bestela, aukerako berraztertze errekurtso bat jarri ahal izango dutela hilabete bateko epean.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

6.- ANA MARIA IRIARTE GARBISURENAK ESKATUTA HASITAKO ONDARE-ERANTZUKIZUNAGATIKO ESPEDIENTEA

IKUSIRIK.- 2004ko Ekainaren 4ko Alkatetza Dekretua, zeinaen bidez Ana Maria Iriarte Garbisurea andreak eskatuta ondare-jabetzagatiko espedienteari hasiera ematen baitzaio.

JAKINIK.- 2004ko Ekainaren 4ko Alkatetza Dekretuan erabaki zela Udalaren Zerbitzu Teknikoei txosten bat egiteko eskatzea, bidearen deskribapena eta egoera azaltzeko. Egindako erreklamazioa ikusita, txostenean hauek ere jaso beharko dira: eginiko erreklamazioa, haren kausak eta Udal jarduerarekin berarekin loturarik duten ala ez.

JAKINIK.- Aipatutako Dekretuan emandako epe barruan erreklamaziogileak frogak aurkezteko epe bat ireki dadin eskatu duela. Hauexek dira aurkeztu nahi dituen frogak:

- .- Lekuko bidezko froga: Amaia Irigoien Iriarte, Eneko Etxeberria Alvarez, Carmen Perez Otano eta instripuaz arduratzeko 112 zerbitzutik etorritakoak.
- .- Dokumentu bidezko froga: aurkeztutako dokumentuak eta froga-proposamenaren idazkia.

JAKINIK.- Erreklamaziogileak 2004ko Ekainaren 18ko idazkian proposatutako frogari dagokionez, ondarezko erantzukizunaren arloan prozedurak onesten dituen martxoaren 26ko 429/1993 Foru Dekretuko 9. artikulua hauxe dioela: "Prozeduraren instrukzio-egileak bakar-bakarrik bota ditzake atzera interesdunek proposatutako frogak, argi eta garbi desegokiak edo alferrekoak badira, eta, beti ere, arrazoitutako ebazpen bidez".

JAKINIK.- Udalak, 112 larrialdi-zerbitzuari gertaeren egunean erreklamaziogilea atenditu zuten langileen indentifikazioa eskatzeari dagokionez, ez dela onartu froga hori egitea, ez delako bidezko frogat jotzen. Izan ere, pertsona horiek eman dezaketen testigantzak ezin du gertatutakoa frogatu, gertaerak izandako unean ez baitzeuden bertan. Dena den, erreklamaziogileak egokitzen jotzendentuen txosten guztiak aurkez ditzake frogak egiteko epean eta dokumentu bidezko froga gisa onartuko dira.

AINZAT HARTURIK.- Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa (azaroaren 27ko BOE, 285 zenbakiduna), Herri Administrazioen erantzukizunari dagokionez.

AINZAT HARTURIK.- Herri Administrazioen ondarezko erantzukizunaren arloan prozeduren Arautegia onesten duen martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuan xedatutakoa (maiatzaren 4ko BOEa, 106 zenbakiduna).

Guzti hori kontutan hartuta, Udalbatzarrari proposatzen zaio, hau erabaki dezala:

- 1.- Prozedura honen instrukziogile izendatzea ANA JESUS ZABALA GARMENDIA, Lizartzako Udalaren idazkari-eskuhartzaile Anderea.
- 2.- Frogaldia irekitzea, hogeita hamar eguneko epeaz, erreklamaziogileak dagozkion epaitegitean proposamenak aurkez ditzan.
- 3.- Amaia Irigoien Iriarte, Eneko Etxeberria Alvarez eta Carmen Perez Otano jaun/andreen lekuko-froga onartzea. Amaia Irigoien Iriarte Andrea, Uztailaren 26an, goizeko 10etan, Eneko Etxeberria Alvarez Jauna, Uztailaren 26an, goizeko 10½tan eta Carmen Perez Otano Andrea, Uztailaren 26an, goizeko 11tan egingo da, Udalaren bulegoetan, eta horretarako lekukoei alde aurretik zitazioa egingo zaie.
- 4.- Froga-proposamenaren idazkiarekin batera, aurkeztutako dokumentuak onartzea, eta jatorrizkoen kopia espedientean utzi ondoren jatorrizko horiek itzultzea.
- 5.- 112 zerbitzuko langileek testigutza emateari dagokionez, erreklamaziogileak proposatutako froga aurkezteari ezezkoa ematea. Hala ere, erreklamazioak egokitzat jotzen dituen beste txosten guztiak aurkeztu ahal izango ditu frogak egiteko epean eta dokumentu bidezko froga gisa onartuko dira.
- 6.- Udalaren Zerbitzu Teknikoei txostena egiteko eskatzea. Txosten hori Ekainaren 4an harturiko erabaki bidez eskatutakoa da. Txostenean bertan eginiko erreklamazioari buruzkoak jaso behar dira, horren kausak eta udal jarduerarekin berarekin loturarik duten ala ez.
- 7.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, eta erreklamazioak aurkeztutako dokumentuak OCASO Aseguru Etxeari bidaltzea, eta aditzera ematea ebazpen honen aurka ezin dela errekurtsorik jarri, izapide hutsezko egintza

baita, interesdunak bere eskubideak defendatzeko bidezkotzat jotzen dituen ekintzen kaltetan izan gabe.

Proposamen aztertu eta eztabaidu ondoren, aho batez onartu da.

7.- LAGUNTZAZKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSKETA. AURRERAPENAREN ONARPENA, ETA LIZENTZIEN SUSPENSIOA

IKUSIRIK.- “LIZARTZako Arau Subsidiarioen Berrikusketaren Dokumentuaren Aurrerapena”ren dokumentu teknikoa, Pilar Azurmendi eta Ainara Sagarna Arkitektoek idatzia.

AINTZAT HARTURIK.- Lurzoruaren Erregimenari eta Hiri Antolaketari buruzko Legearen Testu Bateratuko (apirilaren 9ko 1346/1979 Errege Dekretu bidez onetsia) 27. artikuluan eta horren Planeamendurako Erregelamenduko (ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretu bidez onetsia) 115. artikuluan jasotakoa.

AINTZAT HARTURIK.- Hirigintzako Kudeaketaren Erregelamenduko (abuztuaren 25eko 2159/1978 Errege Dekretu bidez onetsia) 116 eta 117 artikuluetan jasotakoa.

AINTZAT HARTURIK.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.2 c) eta 47.3 i) artikuluetan jasotakoa.

Udalbatzari, erabaki dezala proposatzen zaio:

- 1.- Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikusketaren Dokumentuaren Aurrerapena onestea.
- 2.- Planeamendu berriak barne hartuko dituen lursailen partzelaziorako eta eraikitzeko edo eraisteko baimena emateari uztea.

- 3.- Aurrerapena jendaurrean jartzea hiru hilabetez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita, hala nahi dutenek bidezkotzat jotzen dituzten iradokizunak edo oharrak egiteko.
- 4.- Erabaki hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Berria egunkarian argitaratzea.

Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikusketaren Dokumentuaren Aurrerapena aztertu eta eztabaidu ondoren, aho batez onartzea erabaki da.

8.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

OBRA BAIMENAK

AGUA DE INSALUS S.A. Zkia: 177/2004
JOSE ANTONIO BALERDI URDANPILLETA. Zkia: 202/2004
MARIA GARMENDIA GARMENDIA. Zkia: 215/2004
ESTANIS AGIRRE ZABALA. Zkia: 216/2004
ASCENSIO EIZAGIRRE TREKU. Zkia: 217/2004
ESTANIS AGIRRE ZABALA. Zkia: 218/2004
PABLO MINTEGI ARRATE. Zkia: 243/2004
ORKAIZTEGI S.L. Zkia: 270/2004
AGUA DE INSALUS S.A. Zkia: 304/2004
ESTANIS AGIRRE ZABALA. Zkia: 327/2004
PEDRO AMIAMA BIURRUN. Zkia: 329/2004

HAURRESKOLA

Lizartzako Udalak, Txirrita Gudariaren Plaza, 1ean kokatuko den, 0 eta 3 URTE BITARTEKOENTZAT HAUR-ESKOLA egiteko, egindako ikuskaritza bisita eskaeraren arabera, 2004ko Martxoaren 31an, Udaleko Arkitektoak eginiko Ikuskaritza Aktaren arabera, ERABAKI DUT:

- 1.- Eskatzen ziren baldintza eta neurri zuzentzaileak bete direnez, Aktibitate hori baimentzea.
- 2.- Ebazpen honen berri, Iharduera Gogaingarri, Osasunkaitz, Kaltegarri eta Arriskutsu Lurralde Batzordeari jakineraztea.

A-4 SEKTOREKO HIRIGINTZA OBREN ZIURTAGIRIA

IKUSIRIK.- 2003ko Apirilaren 14ko Udalbatzan hartutako erabakiaren bidez, "A-4, Eremuaren Hirigintza-Lanen Egitasmo Orokorrak, behin betiko onarpena jaso zuen.

IKUSIRIK.- 2003ko Maiatzaren 14an, Lizartzako Udala eta Seaska Etxebizitzak, S.L.-ren artean sinatutako Hirigintza Hitzarmenaren arabera, Entitate horren, A-4ko urbanizazio lanak gauzatzeko konpromezua hartu zuen.

KONTUTAN HARTUAZ.- Geroz, Ur Konfederazioak, Araxes Errekaren alboan pareta berria egiteko agindu zuela. Pareta horren adjudikazioa Udalak burutu zuen, Construcciones Francisco Aierbe S.L.-, A-4ko Eremuko Hirigintza lanak burutzen ari zen, kontratistari adjudikatuaz.

Guzti hori kontutan hartuaz, zera ERABAKI DUT:

- 1.- Construcciones Francisco Aierbe S.L.k aurkeztutako, A-4ko Eremuan, Araxes Errekaren alboan eraikitako pareta berriaren ziurtagiria (28.301,31) €-tako onartzea.
- 2.- Indarrean dagoen Aurrekontuko 601.511.03.01 partidaren kargura, 28.301,31 €-tako gastua onartu eta ordainketa agintzea.

OSTATUKO ALOKAIRUA

IKUSIRIK.- 2003ko Otsailaren 26an, Lizartzako Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilera anitzeko lokalaren adjudikazioko Administrazio Kontratuaren arabera LURDES LASA MIRANDA Andrea izan zela, lehiaketaren adjudikatzaileria.

IKUSIRIK.- 2003ko Abenduaren 15ean, LURDES LASA MIRANDA Andreak Lizartzako Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilera uzteko asmoa, eta hori lehenbaitlehen gauzatzeko asmoa agertu duela.

IKUSIRIK.- Lizartzako Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilera anitzeko lokalaren adjudikaziorako Lehiaketa berria egin ondoren, ez dela inor aurkeztu lehiaketara.

KONTUTAN HARTUAZ.- 2004ko Apirilaren 26an, MARIA ISABEL MORENO CAMARA Andreak, Lizartzako Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilera anitzeko lokalaren adjudikaziorako proposamena aurkeztu du Udal honetan, adieraziz, lehiaketako baldintza ekonomikoak eta administratiboak oso osorik onartzen dituela.

Guzti hori kontutan hartuaz, ERABAKI DUT:

1.- MARIA ISABEL MORENO CAMARA Andreak, Lizartzako Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilera anitzeko lokalaren adjudikazioa egitea, Baldintza berezi hauekin:

- Lizartzako Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilera anitzeko lokalean, jendeari harremana euskaraz emango zaio. Horretarako, jendaurrean jende euskalduna egon beharko du.
- Maria Isabel Moreno Camara Andreak, Euskara ikasteko konpromezua hartzen du.

- 2.- Lizartzako Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilera anitzeko lokalaren lehiaketa berria martxan jartzea, horretarako behar diren Baldintza Pleguak onartu eta dagokion prozedura martxan jarriaz.
- 3.- Lizartzako Gizarte Guneko Jubilatuen Taberna eta Jangela-Erabilera anitzeko lokalaren adjudikazioaren berri, adjudikatariorari ematea, hasteko epea, Maiatzaren 7tik aurrera izango delarik.

U-1 INDUSTRI EREMUAREN BIRZATIKA PROIEKTUA

Bazurka Systems For Landfilling, S.L. – Ur-Argi S.L., Manipulados del Araxes S.L. eta Maria Dolores Carrera Goñi Andreak, U-1 Industri Eremuaren Borondatezko Birzatiketa Eskriturari, lehen onarpena eman zitzaion, bi mila eta lauko martxoaren hiruko, Alkatetzaren ebazpena bidez.

KONTUTAN HARTUAZ.- Lizartzako Arau Subsidiarioetako U-1 Industri Eremuaren Birzatiketa Proiektua, jendaurrean egon dela, 30 eguneko epean, 2004ko Martxoaren 18ko, 53 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2004ko Martxoaren 30eko Berria Egunkarian, eta Udaleko Agiri Taulan, eta epe horretan ez dela inolako alegaziorik aurkeztu.

Guzti hori kontutan hartuaz, ERABAKI DUT:

- 1.- Bazurka Systems For Landfilling, S.L. – Ur-Argi S.L., Manipulados del Araxes S.L. eta Maria Dolores Carrera Goñi Andreak, U-1 Industri Eremuaren Borondatezko Birzatiketa Eskritura, behin betiko onartzea.
- 2.- Erabaki hau jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta egunkari hedatuenetako batean.
- 3.- Baita ere afektatuei jakineraztea.

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ESKAERA

Gaia: Etxez etxeko laguntza eskaera

Espedientea Zkia: 54016/04

Eskatzaileak: Juan Bautista Arzadun San Sebastia eta Pilar Ostilun Loitegi

Eskaria kontuan hartuz, eta udal teknikariaren txostena irakurri ondoren, honako hau ERABAKI DUT:

- 1.- Espediente honetako eskatzaileei etxez etxeko laguntza zerbitzua ematea astelehenetik ostiralera, egunero ordu t'erdiz.
- 2.- Ordutegia eta etxez etxeko langilearen eginbeharrak gizarte zerbitzuek ezarriko dituzte erabiltzaileen eta zerbitzuaren beharretara egokituta.
- 3.- Abenduaren 27ko 722002ko Foru Dekretua jarraituz, erabiltzaileek egin beharreko ekarpena orduko 13,98 eurotakoa da.

Era berean, adierazten dut, erabaki hau eskatzailearen kontrakoa edo aldekoa izan, eskubidea duela erabakiaren aurka jotzeko. Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsua jar daiteke nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren aurretik; beti ere, 30/1992 Legearen 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, hilabete bat izango da erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsua zuzen-zuzenean jar daiteke, alde aurretik berraztertzeko errekurtsorik jarri gabe. Bi hilabete izango dira horretarako, dekretu honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

IOLA – ERREKLAMAZIOA

GAIA: Ana IRIARTE GARBISU Andereak aurkeztutako ondarezko erantzukizuna.

IKUSIZ: Amaia Irigoien Iriarte Andreak, 2003ko maiatzaren 19an Lizartzako Udalean aurkezturiko idatzia.

KONTUTAN HARTUAZ: Idatzi horren bidez, bere amak Ana Iriarte Garbisu Andreak, 2002ko abuztuaren 4an, Lizartzako Lartzalde auzoko lola-Bekoa baserri inguruan dagoen herri bidean, lurrera erori eta bizkarrezurreko orno dorsa bat hautsi eta horrgatik bizkar-muinaren ebakidurak egun duen paraplegia eragin ziola. Idatzi horri, Donostia Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuaren ageri bat, Toledoko Paraplegia Ospitalearen aita-agiria eta Nafar Gobernuak Ezinduzko Zuzendaritza laguntzen dio.

KONTUTAN HARTUAZ: 2003ko azarokoaren 28an, Jose Luis Mendez Crespo abokatuak, OCASO S.A. aseguru etxearen izenean, Lizartzako udalean aurkezturiko idatzia, gaiari buruz hainbat agiri eta informazio eskatzen.

KONTUTAN HARTUAZ: Lizartzako Udalak, 2003ko abenduaren 9an, Mendez jaunaren idatizari erantzunez, Ana Maria Iriarte Garbisu andreak, Udalean aurkeztutako agirien kopia bidali, eta instripua lola Baserriaren inguruan dagoen Herri Bidean gertatu zela Aseguru Etxeari jakinarazten zaiola.

KONTUTAN HARTUAZ: 2004ko maiatzaren 11ean, Alvaro Reizabal Abokatuak, Udalean aurkezturiko idatzia, non, horren bitartez, preskripzioa gelditu eta 600.000 euroko kalte ordaina eskatzen duen.

KONTUTAN HARTUAZ: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azarokoaren 26koa, eta ondarezko erantzukizuneko prozedurak arautzeko Erregelamendua, 1993ko

martxoaren 26an onartutako 429/1993 Errege Dekretua, jartzen duenaren arabera.

ERABAKI DUT:

- 1.- Ondarezko Erantzukizun espedientea ireki Ana Mari Iriarte Garbisu andreak, egindako eskaerari erantzuna emanaz.
- 2.- 15 eguneko epea ematea, ebazpen honen jakinerazpena egiten denetik, nahi diren alegazio eta agiriak aurkeztu ahal izateko, eta nahi bada legeak aurrikusten dituen frogen proposamena egiteko.
- 3.- Udal Zerbitzu Teknikoei, bidearen egoera eta deskribapenari buruzko Txostena eskatzea.
- 4.- Ebazpen hau Ana Maria Iriarte Garbisu eta Ocasu Aseguru Etxeari jakinarazi, esanez beraren aurka ez dagoela inongo helegitea aurkezterik, izapide egintza baten aurrean aurkitzen garelako.

A-4ko LOKALEN EGOKITZEA

IKUSIRIK.- 2004ko Martxoaren 17ko Alkatetza erabakiaren bidez, Lizartzako Udalari Laga Beharreko Lokalak Egoitzeko Lanen kontratazio, behin betiko esleitu zituela.

KONTUTAN HARTUAZ.- 2004ko Martxoaren 24an, Lizartzako Udala eta Construcciones Francisco Aierbe, S.L.ren artean sinatutako Administrazio Kontratuaren arabera, Lizartzako Udalari Laga Beharreko Lokalak Egoitzeko Lanak gauzatzeko konpromezua hartu zuen.

Guzti hori kontutan hartuaz, zera ERABAKI DUT:

- 1.- Construcciones Francisco Aierbe S.L,k aurkeztu eta Udaleko Arkitektoa den, Pilar Azurmendi Etxegaraik onetsitako, Lizartzako Udalari Laga Beharreko Lokalak Egoitzeko Lanen 1. ziurtagiria (50.062,56) €-tako onartzea.
- 2.- Indarrean dagoen Aurrekontuko 601.511.04.01 partidaren kargura, 50.062,56 €-tako gastua onartu eta ordainketa agintzea.

SENDAGILEAREN KONTSULTAKO OBRAK – 2. ZATIAREN ADJUDIKAZIOA

Bi mila eta lauko ekainaren bian ospatutako bilkuran, Lizartzako Sendagile Etxea Eraberritzeko Obren Kontratazio Lanen kontratuaren adjudikazio proposamena luzatu zen, CONSTRUCCIONES FRANCISCO AIERBE S.L. enpresaren alde, bera izan delako proposamenik egokiena aurkeztu duena.

Bilkura horretan luzatutako akta azertu eta berarekin ados, ERABAKI DUT:

- 1.- Lehiaketa negoziatua balioestea eta, Lizartzako Sendagile Etxea Eraberritzeko Obren 2. Zatiaren Kontratazioa, CONSTRUCCIONES FRANCISCO AIERBE S.L-ri., LAUROGEI MILA eta HIRUROGEITA HAMABOST Euro HIRUROGEITA BI Zentimo (80.075,62,-) (Bez barne delarik) €-tan adjudikatzea.
- 2.- Indarrean dagoen Aurrekontuko 622.411.01.01 partidaren kargura, 80.075,62 €-tako gastua onartzea.
- 3.- Hamar eguneko epean, kontratistari esleipen kontratuaren ebazpen hau jakineraztea, hamabost eguneko epean, behin betiko bermea jarri duela egiaztatu ahal izateko, eta hogeita hamar eguneko epean, administrazio kontratuan, esleipena gauzatzeko. Halaber, gainerako partaideei jakinerazpen bera egingo zaie.

9.- BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, goizeko bederatzia direnean.